

## TECNALIA KORPORAZIOAREN BEKAK

### AZTI Fundazioa / TECNALIA RESEARCH & INNOVATION Fundazioa

#### 2016KO DOKTORETZARAKO LAGUNTZA-PROGRAMEN DEIALDIA

### DEIALDIAREN OINARRIAK

#### 1. PROGRAMAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da 13 laguntza ematea onuradunek —aurrerantzean, "trebatzen ari diren langile ikertzaileak" ere esango diegu— **doktoretza-tesia** AZTI Fundazioaren edo TECNALIA RESEACH & INNOVATION Fundazioaren (hemendik aurrera, TRI) zentzoren batean dauden bitartean egin dezaten.

Zehazki, 13 laguntza hauek eskainiko ditugu programa honen bidez:

1. **Desarrollo de herramientas de planificación espacial marítima y su aplicación en el contexto del País Vasco.** Fundación AZTI-AZTI Fundazioa
2. **Aplicación de tecnología analítica de procesos para la evaluación de calidad y eficiencia alimentaria.** Fundación AZTI-AZTI Fundazioa
3. **Nuevas Técnicas Bioinspiradas para Problemas de Optimización y Analítica de Datos y su implementación en Arquitecturas Big Data.** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
4. **Desarrollo de nuevos metales High entropy alloys (HEA).** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
5. **Incremento de la precisión en máquinas herramientas.** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
6. **Incidencia del diseño inteligente para el éxito en la transferencia de tecnología a las PYMES industriales.** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
7. **Desarrollo de fibras huecas inorgánicas para la separación de gases.** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
8. **Diseño de Cementos y Puzolanas Ultrareactivos Mediante Simulación Multiescalar.** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
9. **Integración en red de grandes cantidades de energía renovable utilizando sistemas de transporte en corriente continua de alta tensión (HVDC): redes mayadas HVDC.** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
10. **Desarrollo de un colector solar optimizado para la generación de energía térmica de media temperatura (100-250°C).** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION

11. **Ciberseguridad y confianza en infraestructuras críticas.** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
12. **Optimización de procesos industriales: Medir para mejorar, medir para saber.** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
13. **Modelización numérica del daño en estructuras de hormigón armado sometidas a fatiga.** Fundación TECNALIA RESEARCH & INNOVATION

## 2. ONURADUNAK

- Goi-mailako unibertsitate-tituludunak.
- Ahal dela beka aplikatzen den arloko master bat bukatu dutenak.
- 2013ko otsailaren 1az geroztik eta deialdi honen datan masterra bukatua duten lizentziatuak/ingeniariak sartu ahal izango dira deialdian, edo deialdia egiten den unean master batean izena emana dutenak. *Irizpide horiek betetzen ez badituzte ere, aztertu egingo dira eskatutako profilean eskarmentua dutela erakusten duten hautagaiak).*

## 3. PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

**Iraupena:** Laguntza **gehenez lau urterako** izango da, Trebatzen ari diren Langile Ikertzaileen Estatutuan ezarritakoaren arabera. Lehenbizi, bekadun izango dira bi urtez, eta, gero, praktikaldiko kontratuarekin arituko dira gehenez beste bi urtez. Urtez urte berrituko dira aldi horiek.

Tesia lau urteak igaro baino lehen defendatzen bada, trebakuntza-programa tesia defendatzen den hilabetean amaituko da.

**Hornidura ekonomikoa: Bekadun-aldian,** hileko hornidura gordina **1.000 €** izango da. Denbora-tarte horretan, trebatzen ari diren langile ikertzaile bekadunek bekari dagokion laguntza ekonomikoa dagokion epean jasotzeko eskubidea izango dute, eta laguntza horrek ez du ordainsari-izaerarik izango; halaber, eskubidea izango dute **Gizarte Segurantzaren** Erregimen Orokorrean sartzeko, 63/2006 Errege Dekretuaren Lehen Xedapen Gehigarriaren 1. atalean ezarritakoaren arabera. Halaber, errege-dekretu horren 6.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, trebatzen ari diren langile ikertzaile bekadunek beren gain hartu behar dituzte Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sarteagatik dagozkion obligazioak. Aldi horretan, hornidura ez dago PFEZri lotua, foru-arau hauek ezartzen dutenaren arabera: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 9. artikulua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 9. artikulua.

Hirugarren urtetik aurrera, **praktikaldiko lan-kontratu** bat sinatuko du trebatzen ari den langile ikertzaileak eta AZTI Fundazioak edo TRIK, eta, hala, zer erakunde, zentro edo instituziori atxikia dagoen, **legez dagokion ordainsaria** jasoko du.

**Gutxi gorabeherako sartzeko data:** 2016ko otsailaren 1a. Dena den, programa honen bidez eskaintzen diren 13 laguntzetako bat jasotzen duten onuradunak laguntza esleitu/eman bezain pronto sartu ahal izango dira 2016ko otsailaren 1a baino geroago sartuz gero zentroan, laguntzaz baliatzeko egunen arabera doituko da hornidura. Programa garatuko den zentrorako sartzeko data

gorabehera, laguntzaren lehen urtea **2017ko urtarrilaren 31n** joko da amaitutzat.

#### **4. ESKAERAK AURKEZTEA**

- 4.1 Aurkezpena:** AZTI Fundazioaren eta TRIren webgunean eskuratu daitekeen eskaera-orriaren bidez egingo dira eskaerak.  
([www.azti.es](http://www.azti.es) eta [www.tecnalia.com](http://www.tecnalia.com) )
- 4.2 Datak:** Iragarkia argitaratu eta hiru asteko epean aurkeztu behar dira eskaerak.
- 4.3 Baldintzak:** Laguntza eskatzeko, ezinbestekoa da **goi-mailako unibertsitate-titulua** izatea, eta, ahal dela, beka aplikatzen den arloko **masterra** izatea, edo deialdia egiten den unean master batean izena emana izatea.
- 4.4 Hizkuntzak:** Eskaerak gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez aurkeztu daitezke.
- 4.5** Dokumentazio hau aurkeztu behar da eskaera egiteko:
- 4.5.1. Eskaera-orria behar bezala bete behar da, AZTI Fundazioaren edo TRIren webgunearen bidez.
  - 4.5.2. Argazki bat, nortasun-agirikoaren tamainakoa
  - 4.5.3. CVa eta espediente akademikoa
  - 4.5.4. Baliteke AZTI Fundazioak edo TRIk dokumentazio gehigarria eskatzea.
- 4.6** Hautagai batek gehienez 3 hautaketa-prozesutan parte hartu ahal izango du programa honen 1. puntuari adierazitako laguntzetako baten onuradun izateko. Programa honen 1. puntuari adierazitako laguntzaren bat esleitzen/ematen bazaio hautagai bati, hautagai horrek ezin izango du jaso programa honen bidez eskaintzen diren beste laguntzarik.

#### **5. HAUTAKETA-PROZESUA ETA LAGUNTZAK JAKINARAZTEA**

##### **5.1 Balorazio-irizpideak**

AZTI Fundazioak edo TRIk epaimahai kalifikatzaile bat izendatuko du programa honen bidez eskaintzen diren laguntzak esleitzeko.

Eskaeren lehenengo balorazioa irizpide hauen arabera egingo da:

- Deialdiaren arabera titulazio-betekizunak betetzen diren.
- CVa eta espediente akademikoa.
- Titulazioa.

Eskatzaileak AZTI Fundazioaren edo TRIren webgunearen bidez aurkeztutako informazioan oinarrituta baino ez da egingo hautaketa-prozesuen **lehenengo fasea**. Aurrerago, emandako dokumentazio guztiaren egiazkotasuna frogatu beharko du.

Atzerriko titulazioek estatuko titulazioekin duten baliokidetasuna balioztatuko du AZTI Fundazioak edo TRIk. Atzerriko titulazioak dituzten hautagaiek homologazioa izan behar dute hautagaia aurkezten dutenean.

Hautaketa-prozesuen **bigarren fasean**, lehenik eta behin, aurrehautaketa tekniko bat egingo da, eta, ondoren, elkarriketa pertsonal bat egingo zaie puntuazio onena duten hautagaiei. Besteak beste, alderdi hauek balioetsiko dira:

- Hizkuntzak
- Karrera-amaierako proiektuaren gaia, egindako lan teknikoak, ikasketak edo eskatzaileak berak aurkeztutako bestelako edo zer merezimendu
- Gaitasun eta trebetasun pertsonalak

## 5.2 Jakinaraztea eta argitaratzea

Programa honen bidez eskaintzen diren laguntzak hautaketa-prozesu bakoitzaren bukaeran esleituko/emango zaizkie hautatuei. Dagokien prozesuaren bukaerara heldu diren, elkarrizketa egin zaien eta laguntzarik jaso ez dutenak ordezkoen zerrenda batean geratuko dira. Emandako laguntzaren bat jabe gabe geratzen bada, ordezkoen zerrendako beste onuradun bat izenda dezake AZTI Fundazioak o TRIK.

Hautaketa-prozesu bakoitzean, prozesuaren bilakaerari buruzko informazioa emango zaie eskatzaileei posta elektronikoz. Programa honen bidez eskaintzen den laguntza bakoitzaren esleipen ofiziala posta elektronikoz jakinaraziko dio AZTI Fundazioak edo TRIK onuradunari, laguntzak esleitu/eman ahala. Halaber, programa honen bidez eskaintzen den laguntza bakoitzaren esleipena AZTIren eta TRIren webgunean argitaratuko da laguntza hori izendatu/eman orduko.

Laguntzaren bat eman gabe geratzen bada edo deialdiko programan aldaketaren bat gertatzen bada, AZTI Fundazioak edo TRIK eskubidea du egokien irizten zaizkion erabakiak hartzeko deialdi honi dagokion izaerari eutsiz, betiere.

## 6. LAGUNTZA BALIATZEKO BALDINTZAK

### 6.1 Erregimen juridikoa

Laguntza Programaren deialdi honek oinarri hauek ditu araubide, eta 2006ko urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuan —zeinak onartzen baitu Trebatzen ari diren Langile Ikertzaileen Estatutua— ezarritakoa aplikatu behar zaio.

### 6.2 Baldintzak

Onuradunak trebakuntza egingo duen adskripzio-zentroan sartzean hasiko da laguntzaz baliatzen. Onuradunak konpromisoa hartuko du aurreikusitako programa amaitzeko eta une oro AZTI Fundazioaren edo TRIren arauak betetzeko; betiere, behar bezala aprobetxatzeko jarrera eta interesa erakutsiko du.

Trebatzen ari den langile ikertzaileak tutore bat eta doktore-tesiaren zuzendari bat izango ditu. Betiere, tesia egingo duen unibertsitatearekin adostuta. Pertsona bakar batek bete ditzake bi funtzioak. Horretaz guztiaz gainera, AZTI Fundazioak edo TRIK eskubidea du une oro trebatzen ari diren langile ikertzaileen jarduerari buruzko kontrol orokorra egiteko.

Programa honen 4.6 puntuan adierazitakoa kontuan izanik, Laguntza Programa hau jasotzen den bitartean bateraezina da beste laguntzaren bat jasotzea (TLIEko 5.1 artikulua d) atalean aipatzen diren laguntza osagarriak izan ezik), ordainsari profesionalak jasotzea edo norberaren edo besteren kontura zerbitzuak emateagatik ordainak kobratzea.

**AZTI Fundazioak edo TRIK eskubidea du Programa betetzen ez bada emandako laguntzak erreklamatzeko.**

AZTI Fundazioak edo TRIK eskubidea du urteko edozein unetan trebatzen ari den ikertzaileari haren jarduerari buruzko txosten bat eskatzeko. Txosten hori aurkezten ez bada edo AZTI Fundazioak edo

TRIk kontrako ebaluazioa egiten badu, laguntza berehala eten daiteke. Erabaki horrek arrazoitua beharko du izan.

Gainera, **arrazoi hauek laguntza etetea** eragingo dute, edo, hala badagokio, denboraldi batez geldiaraztea:

Ezarritako trebakuntza-helburuak lortzerik ez izatea.  
Laguntza behar bezala ez aprobetxatzea, nabarmen.  
Ekipoak eta materialak behar ez bezala erabiltzea.  
Zentroko arauak ez errespetatzea.  
Konfidentzialtasuna ez errespetatzea.  
Egindako jarduera behar bezala ez komunikatzea (moduari edo funtsari dagokionez).  
Bekaren helburuak edo adskripzio-zentroaren pertsonen, ondasunen edo jokaera-arauen kontrako jarrerak agerian uzten dituen portaera izatea.

### 6.3 Eskubideak eta betebeharrak

Onuradunek eskubide eta betebeharrak hauek izango dituzte:

Trebatzen aritzeagatik, indarrean dagoen deialdiaren oinarrietan ezarritako hornidura ekonomikoa jasoko dute.  
Laguntzari dagokionaz bestelako trebakuntza jasotzeko aukera izango dute, AZTI Fundazioaren edo TRIren arauen arabera.  
AZTI Fundazioa edo TRI une oro egongo da eskakizunei kasu egiteko prest.  
Segurtasun- eta sarbide-arloan, AZTI Fundazioaren edo TRIren barne-araudia bete behar da jarduera egiten den tokian.  
Onuradunarenak dira ikerketan egiten duen trebakuntza-jardueratik eta haren ekarpenaren arabera lortzen diren jabetza intelektualeko eskubideak, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateratuan ezarritakoaren arabera —1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegileak onartzen du—. Eskubide horiek egindako ikerketatik sor litezkeen beste eskubide batzuekiko independenteak, bateragarriak eta metagarriak izango dira; hala ere, lan kolektibotik sortutako baldintzatzaileak ere bete beharko ditu, onuradunak ikerketa-proiektu kolektibo batean parte hartzen badu edo halako bati lotuta badago.  
Laguntzaz baliatzen ari den bitartean eta amaitzean zentroan ikertzen edo aztertzen ari diren gaien buruzko konfidentzialtasuna errespetatu behar du, eta AZTI Fundazioaren edo TRIren berariazko onespina behar du gai horiek erabiltzeko eta/edo hirugarrenei jakinarazteko.  
63/2006 Errege Dekretuan —zeinaren bidez onartzen baita Trebatzen ari diren Langile Ikertzaileen Estatutua— jasotzen diren gainerako eskubideak eta betebeharrak.

AZTI Fundazioa edo TRI izango da 63/2006 Errege Dekretuan —zeinaren bidez onartzen baita Trebatzen ari diren Langile Ikertzaileen Estatutua— ezarritako eskubideen eta betebeharren subjektua, eta trebakuntza behar bezala garatzen dela bermatu behar du, trebatzen ari diren langile ikertzaileek egin beharreko lana erraztuz.

Ikerketarekin batera argitaratzen diren lan guztietan AZTI Fundazioaren edo TRIren laguntza aipatu beharko da, eta argitalpenaren ale bat bidali beharko da erakunde horretara.

Gauzatutako jarduera ziurtatzen duen diploma bat emango du AZTI Fundazioak edo TRIk, trebakuntzako hirugarren urtea hasten denez geroztik.

## 7. BESTE BALDINTZA BATZUK

Programari laguntza eskatze hutsak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du, eta AZTI Fundazioak edo TRIK ebatziko ditu sor litezkeen arazoak.

AZTI Fundazioak edo TRIK eskubidea du "2016ko Doktoretzarako Laguntza Programa"ren deialdiko oinarri hauek egoki irizten zaizkion aldaketak egiteko, bai eta deialdia bera amaitutzat jotzeko ere, bereziki —baina ez modu mugatzailean— deialdia sortzeko baldintzak aldatzen dituzten lege-aldaketak gertatzen badira.

Beka-/laguntza-programaren eduki osoa erabat konfidentziala da. Hala, beka/laguntza indarrean dagoen bitartean zein edozein arrazoiren ondorioz amaitzen denean, bekaren/laguntzaren onuradunak berariazko konpromisoa hartzen du beka/laguntza hau indarrean dagoen bitartean emakidadunak ematen edo uzten duen informazio, dokumentazio, lan-metodo eta/edo bestelako edozein elementurekiko konfidentziasunari eusteko. Baldin eta onuradunak betetzen ez badu klausula honetan ezarritako konfidentziasun-betebeharra, emakidadunak eskubidea izango du dagozkion legezko ekintza guztiak gauzatzeko bekaren/laguntzaren onuradunak betebeharrak ez betetzeagatik eragindako kalteak eta galerak ordaindu ditzan.

Halaber, laguntza baten onuradunak berariaz onartzen dute beren izen-abizenak onuradunen zerrenda batean argitaratzeko AZTI Fundazioaren edo TRIren webgunean.

## 8. INFORMAZIOA

- Telefonoz: **AZTI:** 946 57 40 00  
**TECNALIA RESEACH & INNOVATION Fundazioa:** 902 760 000
- Webguneen bidez: [www.azti.es](http://www.azti.es)  
[www.tecnalia.com](http://www.tecnalia.com)
- Posta elektronikoz: [becas@azti.es](mailto:becas@azti.es)  
[becasdoctorado@tecnalia.com](mailto:becasdoctorado@tecnalia.com)